

JARDUERAREN ERREGISTRO-IZENA	KONTULARITZA PUBLIKOA
OINARRI JURIDIKOA	DBEO: 6.1.c) Tratamendua egin behar da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean toki entitateetako ekonomiaz eta aurrekontuez ezarritako betebeharrak betetze aldera.
TRATAMENDUAREN XEDEAK	Udalarekin harreman ekonomikoak eta fiskalak dituztenen datu pertsonalak bildu eta gordetzea. Datuak erabiliko dira aurrekontuen gaineko kontularitza publikoa eta fakturazioa eramateko.
NOR	Kontabilitate ekitaldian Udalarekin harreman ekonomikoa duten entitateak edo norbanakoak.
DATUEN KATEGORIAK	Izen-abizenak, helbidea, NAN/IFZ. Ekonomia-, finantza- eta aseguru-datuak.
HARTZAILEEN KATEGORIA	Kontuen Ganbera Foru Komunitateko organoak. Gardentasun ataria Datuak tratatzea eragiten duen zerbitzua udalari ematen dioten erakundeak edo pertsonak. Kasuotan, kontratu batean oinarriturik egingen da sarbidea. Kontratuak berme guztiak izanen ditu barne, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 28. artikuluan xedatutakoarekin bat.
NAZIOARTEKO TRANSFERENTZIAK	Ez dago.
EZABAKETA-EPEA	Xedea mantentzen den bitartean gordetzen dira, aplikazio-araudiarekin bat (Artxiboei eta Dokumentuei buruzko Foru Legea eta 51/2016 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak emana, Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak onesten dituena).
SEGURTASUN-NEURRIAK	Administrazio Elektronikoaren esparruan ezarritako neurriak urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan daude aurreikusita; dekretu horrek Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasunerako Eskema Nazionala arautzen du. Beste esparru batzuk: Datuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko segurtasun-neurriak: Sarrera-kontrola. Identifikazioa eta autentifikazioa. Euskarrien kudeaketa. Gorabeheren kudeaketa eta segurtasun-arrakalak. Erabiltzaileen eginkizunak eta betebeharrak Segurtasunezko kopiak. Segurtasuna telekomunikazioetan.
ENTITATE ARDURADUNA	<b>ARESOKO UDALA</b>